

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUETAKO BATZORDEA /
COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

<u>GETXOKO</u> <u>UDALEKO</u> <u>ANTOLAKUNTZA</u> <u>ETA</u> <u>KONTUETAKO</u> <u>INFORMAZIO</u> <u>BATZORDEAK</u> <u>2020KO</u> <u>OTSAILAREN 20AN</u> <u>EGINDAKO</u> <u>BILKURAREN AKTA</u>	<u>ACTA DE LA SESIÓN</u> <u>CELEBRADA POR LA COMISIÓN</u> <u>INFORMATIVA DE</u> <u>ORGANIZACIÓN Y CUENTAS</u> <u>DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO</u> <u>DE GETXO, EL DÍA 20 DE</u> <u>FEBRERO DE 2020</u>
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
Batzordeburua	El Presidente

IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA jn. (EAJ-PNV)

BATZORDEKIDEAK // VOCALES

KELTSE EIGUREN ALBERDI and. (EAJ/PNV)
JANIRE OCIO CELADA and. (EAJ/PNV)
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jn. (EAJ/PNV)
IÑIGO URKITZA YAÑEZ jn. (EAJ/PNV)
GONZALO ZORRILLA LEQUERICA PAÑEDA jn.
(PP)
ALICIA GONZÁLEZ DEL VALLE FRANCOS and.
(PP)
CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA and. (EH
BILDU)
IBON RODRÍGUEZ LARRINAGA jn. (EH BILDU)
CARMEN DÍAZ PÉREZ and. (PSE-EE (PSOE))
PAULA AMIEVA CLEMENTE and.
(ELKARREKIN PODEMOS)

BATZORDEKO IDAZKARIA // SECRETARIA COMISIÓN

CRISTINA ORBEZUA GONZÁLEZ and.

KONTUHARTZAILEA // INTERVENTORA

NURIA HERNÁNDEZ SOTO and.

Udaletxeko Bilkura Aretoan,
2020ko otsailaren 20an, 13:40an,
Antolakuntza eta Kontuetako Informazio
Batzordea bildu da.

En el Salón de Sesiones de la Casa
Consistorial, el día 20 de febrero de 2020,
a las 13:40 horas, se reúne la Comisión
Informativa de Organización y Cuentas.

Honako honen berri ematen da:
Iñigo Urkitza Yañez jauna bilerara
bertaratu da Carlos Sergio Atxotegi
jaunaren ordeez.

Se hace constar que don Iñigo
Urkitza Yañez asiste a la sesión en
sustitución de don Carlos Sergio Atxotegi

Bertaratu dira aipatutako
zinegotziak, kontu hartzaile orokorra eta
ni, batzordeko idazkaria, eta honako gai
hauek jorratu dira:

Con la asistencia de las/os
Sras/Sres. Concejales/es mencionadas/os,
de la Interventora General y de mí, la
Secretaria de la Comisión, se trataron los
siguientes asuntos:

Hasi aurretik, Batzordeko
presidenteak jakinarazi du informazio-
batzordeak asteazkenean, 18an, bilduko
direla, eta artezkaritza-batzordeak,
asteartean, 17an, martxoaren 19a jaieguna
delako.

Antes de comenzar el Presidente
de la Comisión anuncia que, teniendo en
cuenta que el jueves 19 de marzo es
festivo, las comisiones informativas se
reunirán el miércoles 18 y las juntas
rectoras el martes 17.

1. 2020-01-23KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

1. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 23.01.2020.

Ibon Rodríguez jaunak adierazi du,
ez dela onetsi aurreko saioan bere taldeak
batzorde honen inguruan eskatutakoa, hau
da, aktak literalak izatea. Horregatik, EH
Bilduk aurka bozkatuko duela esan du.

Don Ibon Rodríguez manifiesta
que, dado que no se ha aceptado lo
solicitado por su grupo en relación con
esta comisión, es decir, que las actas sean
literales, EH Bildu votará en contra.

2020ko urtarrilaren 23ko akta
bozkatu da, eta aldeko 8 botorekin, EAJ,
PP eta PSE-EE alderdienak; kontrako
2rekin, EH Bildurena; eta abstentzio
lekin, Elkarrekin Podemosen, onetsi da.

Sometida el acta de 23 de enero de
2020 a votación es aprobada al obtener 8
votos a favor, PNV, PP y PSE-EE; 2 votos
en contra, EH Bildu; y 1 abstención,
Elkarrekin Podemos.

2. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BELAUNALDIEN ARTEKO KOHESIORAKO EKIPAMENDU PUBLIKO MISTOA SUSTATZEKO (GAZTEEI ZUZENDUTAKO UDALEKO ZUZKIDURA-OSTATUAK), ONESTE ALDERA KREDITU GEHIGARRIA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Ibon Rodríguez jaunak kexa bat azaleratu du, espediente horrekin gertatutakoagatik. Gogorarazi du Batzordeko presidentek beti adierazten duela hari aurkeztutako proposamenen txostenak udalkideentzat eskuragarri daudela espedienteetan. Dena den, espedienteak ikustera joatean, egiaztatu zuen txostena ez zegoela, eta deialdiarekin bidalitakoa bakarrik zegoela bertan. Jarraian, Ondarera jo zuen, txostena ikusteko, eta han esan zitzaion espediente bat ikusteko zinegotzi arduradunaren baimena eskatu behar zaiola idatziz (dena den, erakutsi zitzaion espedienteak). Horregatik, eskatu du gai-zerrendarekin lotutako txosten guztiak udalkideen eskura egoteko.

Jarraian, Rodríguez jaunak salatu du zinegotzietan eskatu zaiela 3.400.000,00 euroko kreditu gehigarria itsu-itsuan onartzeko, eta hori ez da onargarria, inola ere ez. Izan ere, asmoa ez da bakarrik eraikina egitea, zeinean gero Udalak dinamizazio-lanak egin beharko dituen;

2. PROPUESTA DE APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LA PROMOCIÓN DE UN EQUIPAMIENTO PÚBLICO MIXTO DE COHESIÓN INTERGENERACIONAL (ALOJAMIENTOS DOTACIONALES MUNICIPALES PARA JÓVENES).

Don Ibon Rodríguez expresa su queja por lo ocurrido en relación con este expediente. Recuerda que el Presidente de la Comisión siempre señala que los informes de las propuestas que se someten a la misma están a disposición de los corporativos en los expedientes. Sin embargo, al acudir a ver el expediente comprobó que no estaba el informe y que solo estaba lo remitido con la convocatoria. A continuación fue a Patrimonio a ver el informe, donde se le indicó que para ver un expediente se debe solicitar autorización por escrito al concejal responsable (no obstante se le mostró el expediente en cuestión). Por ello solicita que todos los informes relacionados con los puntos del orden del día de las comisiones estén a disposición de los corporativos.

A continuación, el Sr. Rodríguez denuncia que se les pide a los concejales que aprueben a ciegas un crédito adicional de 3.400.000,00 euros, lo que no es aceptable de ninguna de las maneras. Y es que no solo se trata de la construcción del edificio sobre el que después el

horrez gain, jabari publikoaren lagapen bat egingo da Bizkaiko Foru Aldundiaren alde, udal-eraikinaren zati batena, 75 urterako. Gaineratu du gobernu-taldearen asmoa dela Nagusien Etxea eraistea, eta horretarako hainbat proiektu aipatu ditu: lehenik etxebizitzaz hitz egin zen, eta gero belaunaldien arteko zentro berritzaile batez. Onartu du proiektua berez onuragarria izan daitekeela, baina arazoa da nola eta non egin nahi den. Adierazi du ere aurreko batzorde batean ustez ulertu zuela PSEko bozeramaileak esan zuela proiektu hori egiteko ez zela beharrezkoa eraikina eraistea. Gogora ekarri du iraganean hori zela talde sozialistarentzako marra gorri bat. Dena den, hitzarmen horretan sartuta dago eraistea, eta, beraz, badirudi marra hori gainditu dela.

Argudiatzen jarraitu du Rodríguez jaunak, adieraziz kreditu hori onartu arren bere taldeak proposatuko lukeela egia partekatzeko talde politikoekin: zer egingo den eta nola (planoak, etxebizitza kopurua, eraikinen garaiera eta abar), eta, are gehiago, Romoko biztanleekin ere partekatzea, baita Nagusien Etxeko erabiltzaileekin eta gazteekin, eta haiei entzutea, bakoitzaren beharrak ezagutzeko. Ondorio moduan, Rodríguez jaunak uste du gobernu-taldeak eskatu duela kreditu gehigarri hori babesteko inongo azalpenik eta justifikaziorik gabe. Halaber, Ibon Rodríguez jaunak salatu du Getxoberrin informazio faltsua argitaratu dela, adierazi baita inbertsiorako onartutako aurrekontua sei milioi eta erdikoa dela, eta egiaz hiru milioi zazpiehun mila eurokoa da.

Ayuntamiento tendrá que hacer labores de dinamización, sino que además se va a otorgar una concesión demanial a favor de la Diputación Foral de Bizkaia sobre parte del inmueble municipal durante 75 años. Añade que lo que quiere el equipo de gobierno es tirar el Nagusien Etxea y para ello ha mencionado varios proyectos: primero habló de viviendas, después de un centro innovador intergeneracional. Admite que el proyecto en sí puede ser bueno, pero que el problema es cómo y dónde se plantea hacer. También señala que en una comisión anterior creyó entender que el portavoz del PSE dijo que para llevar adelante este proyecto no era preciso tirar el edificio. Recuerda que en el pasado esa fue una raya roja para el grupo socialista. Y sin embargo este convenio incluye el derribo, por lo que parece que esa raya se ha superado.

Sigue con su argumentación el Sr. Rodríguez manifestando que aunque se apruebe este crédito su grupo propondría que se comparta de verdad con los grupos políticos qué es lo que se va a hacer y cómo se va a hacer (los planos, el nº de viviendas, la altura del edificio...) y, más aún, que se comparta con los vecinos de Romo, con los usuarios del Nagusien Etxea y con los jóvenes y se les escuche para ver cuáles son las necesidades que tienen. En conclusión opina el Sr. Rodríguez que el equipo de gobierno solicita el apoyo a este crédito adicional sin ninguna explicación ni justificación. Asimismo don Ibon Rodríguez denuncia que se ha publicado en el Getxoberri una información falsa, ya que se indica que el presupuesto que hay aprobado para inversión es de seis millones y medio de euros, cuando en realidad es de tres millones setecientos euros.

Uriarte jaunak erantzun du, esanez Rodríguez jaunak adierazitako gauza gehienekin ados ez dagoen arren, ez dela eztabaidan sartuko, eta adierazi du hitzarmenak eskatzen duena dela finantzazioa izatea, eta hori ekarri dela batzordera. Gaineratu du proiektuaren izaeraren inguruko azalpenak eman direla, eta EH BILDUk eskatutakoa helaraziko eta aztertuko dela.

Rodríguez jaunak erantzun du ez direla azaldu proiektuaren xehetasunak, adibidez, zenbat plaza egongo diren. Gainera, Udaleko Gobernu Batzarrak hitzarmena onartu du, baina oraindik ez du publiko egin, ez delako akta onartu, eta Aldundiak ere oraindik ez duela onartu, eta, horrenbestez, ez dago indarrean. Azken finean, oraindik onartu gabeko hitzarmen baterako finantzazioa eskatzen ari dira.

Uriarte jaunak erantzun du hitzarmena sinatzeko lehenik eta behin finantzazioa egon behar dela, eta azaldu du hitzarmen hori teknikariek garatu beharko dutela, eta orduan emango direla haren nondik norakoaren azalpenak.

Amieva andreak, bere aldetik, adierazi du proiektuaren inguruko azalpenak eman direla bere taldeak galderak aurkeztu dituelako, eta ez gobernu-taldearen ekimenez. Gaia garrantzi handikoa da, eta, horregatik, aurreko batzordeetan azalpenak eman behar ziren, informazio orokor moduan. Horrez gain, adierazi du emandako azalpenak ez direla nahikoa izan, eta

Responde el Sr. Uriarte que, aunque no está de acuerdo con la mayor parte de lo manifestado por el Sr. Rodríguez, no va a entrar en el debate y señala que lo que el convenio requiere es disponer de financiación y eso es lo que se trae a esta comisión. Añade que las explicaciones sobre lo que el proyecto es y lo que no es ya se han dado y que se trasladará y analizará lo solicitado por EH BILDU.

El Sr. Rodríguez contesta que no se han explicado los pormenores del proyecto, por ejemplo cuántas plazas habrá. Además, la Junta de Gobierno del Ayuntamiento ha aprobado el convenio pero aún no lo ha hecho público porque no se ha aprobado el acta, mientras que la Diputación aún no lo ha aprobado, por tanto el convenio no está en vigor. En definitiva, se está solicitando financiación para un convenio que todavía no está aprobado.

Responde el Sr. Uriarte que para firmar el convenio debe de haber antes financiación y que ya se ha explicado que dicho convenio tiene que desarrollarse técnicamente y será entonces cuando se den las explicaciones acerca de en qué consiste.

La Sra. Amieva, por su parte, manifiesta que se han dado explicaciones sobre este proyecto porque su grupo ha presentado preguntas, no porque hayan partido de la iniciativa del equipo de gobierno. Y se trata de un asunto de tal envergadura que tendría que haberse explicado en anteriores comisiones como información general. Por otra parte, señala que las explicaciones dadas no han sido

kezkarria dela espedientean hitzarmena erantsi ez izana. Amieva andreak ondorioztatu du gardentasun falta erakusten dutela hitzarmenaren testura iristeko zailtasun handi horiek izateak.

suficientes y que es preocupante que no se haya adjuntado el convenio al expediente. Concluye la Sra. Amieva que estas cuestiones unidas al hecho de que haya resultado tan difícil acceder al texto del convenio denotan falta de transparencia.

Proposamenaren berri eman eta bozketara eramán ondoren, emaitza honako hau izan da: **aldeko 6 boto (EAJ eta PSE-EE); kontrako 3 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 2 abstentzio (PP).**

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, PNV y PSE-EE, 3 votos en contra de EH Bildu y Elkarrekin Podemos., y 2 abstenciones del PP.**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2020/01, zenbatekoa 3.400.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2020/01 de Crédito Adicional, por importe de 3.400.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
060/1520/6220202	Gazteentzako zuzkidura-bizitokien eraikina (Etxebizitza) Edificio alojamientos dotacionales para jóvenes (Vivienda)	3.400.000,00
Guztira Total		3.400.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, diru-sarrerei lotutako gastuetarako Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada	3.400.000,00
---	---------------------

3. GETXOKO UDALAREN ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDEEN 2016-2019KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA EGIKARITZEAREN BERRI EMATEA.

Uriarte jaunak gogorarazi du asmoa dela martxoko osoko bilkurara eramatea plan estrategiko berriaren onarpena. Horregatik, saiatuko da bilera bat antolatzen informazio-batzordearen aurretik, proposamena ahalik eta adostuena izan dadin. Orain helarazitako informazioa argitu behar bada, oharra hartuko da, batzordeetara arte gelditzen den aldian erantzuteko.

Amieva andreak galdetu du bilera horretan eskuragarri izango den gobernu-taldearen proposamena.

Uriarte jaunak adierazi du gobernu-taldeak hausnarketa bat egingo duela txosten teknikoak kontuan hartuta, baina aurreikusi dela aurreko plana eramatea, egikaritzeari lotutako ñabardurak edo aldaketa txikiak eginda. Gaineratu du asmoa dela osoko bilkuran aurkeztutako proposamena ahalik eta

3. DACION DE CUENTA DE LA EJECUCIÓN DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS DEPENDIENTES.

El Sr. Uriarte recuerda que la intención es llevar al Pleno de marzo la aprobación del nuevo plan estratégico, por lo que se intentará propiciar una reunión antes de la comisión informativa para que la propuesta sea lo más consensuada posible. Si hay alguna necesidad de aclaración de la información que ahora se traslada, se tomará nota para dar respuesta en el plazo que queda hasta las comisiones.

Pregunta la Sra. Amieva si en esa reunión se dispondra de la propuesta del equipo de gobierno.

El Sr. Uriarte señala que el equipo de gobierno hará una reflexión a la vista de los informes técnicos pero lo previsible es que se lleve básicamente el plan anterior con matices o pequeños cambios derivados de la ejecución. Y que la intención es que la propuesta que vaya finalmente al Pleno esté lo más

adostuena izatea.

Rodríguez jaunak azaldu du gobernuaren lana dela proposamenak prestatzea eta oposizioarena, batzuetan, laguntzea, eta, beste batzuetan, kontrolatzea. Gaineratu du gaur-gaurkoz gobernuak badakiela PPren proposamena onartuz gero EH BILDU aurka izango duela, eta alderantziz. Horrenbestez, gobernu-taldeak bietako bat aukeratu behar du, biak aukeratzea ezinezkoa baita. Metodologia horri jarraitu behar zaio; izan ere, behin hori ebatzitzekoan egin ahalko da aurrera. Bestela, ezinezkoa izango da.

Uriarte jaunak erantzun du planteamendua aintzakotzat izango duela, baina zehaztu du orain arte EH BILDUko inork ez zuela premisa hori azaleratu.

Ibon Rodríguez jaunak erantzun du ez dela informazio berria, kontuan hartuta PPK Dirulaguntzen Plan Estrategikoen aldaketak osoko bilkuran bozkatu diren guztietan adierazitakoa.

Antolakuntzako eta Kontuetako Informazio Batzordeari jakinarazi zaio Getxoko Udaleko eta bere mendeko organismoen 2016-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoren jarraipen- eta kontrol-espediterearen berri emango dela, bertan jasotako txosten eta dokumentazio guztiarekin.

consensuada posible.

Por su parte el Sr. Rodríguez expone que la labor del gobierno es preparar las propuestas y la de la oposición es, a veces, ayudar, y otras veces, controlar. Añade que a fecha de hoy lo que ya sabe el gobierno es que si secunda la propuesta del PP tendrá la oposición de EH BILDU y viceversa. Por tanto, el equipo de gobierno debe de escoger una de las dos opciones, ya que ambas es imposible. Esa es la metodología concreta a seguir, ya que una vez resuelta esa cuestión se podrá continuar. De otra forma no se avanzará.

El Sr. Uriarte responde que toma nota del planteamiento, pero precisa que hasta el momento nadie de EH BILDU había manifestado esa premisa.

Don Ibon Rodríguez responde que no es una información nueva si se atiende a lo manifestado por el PP siempre que se han votado modificaciones del Plan Estratégico de Subvenciones en el Pleno.

Se informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta del expediente de seguimiento y control del Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos dependientes, con todos los informes y documentación que en él se acompañan.

4. ZINEGOTZI ESKUORDEAREN URTARRILAREN 27KO 376/2020 EBAZPENAREN BERRI EMATEA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, XEDATU DA 949/2019 PROZEDURA ARRUNTEAN AURKEZTEA, ZEINA MARÍA DOLORES AZCORRA ELGUEZABAL ANDREAK HASI BAITU OSOKO BILKURAREN 2019KO URRIAREN 18KO ERABAKIAREN (GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN 42."ORMATZA" BANAKETA-AREARAKO ALDAKETA ZEHATZA BEHIN BETIKO ONETSI DUENAREN) AURKA.

Keltse Eiguren andreak Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeari jakinarazi dio osoko bilkuran honako honen berri emango dela: Zinegotzi eskuordearen urtarrilaren 27ko 376/2020 Ebazpena. Ebazpen horren bidez, xedatu zen 949/2019 prozedura arruntean aurkeztea, zeina María Dolores Azcorra Elguezabal andreak hasi baitu Osoko Bilkuraren 2019ko urriaren 18ko erabakiaren (Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean 42."Ormatza" banaketa-arearako aldaketa zehatza behin betiko onetsi duenaren) aurka.

4. DACION DE CUENTA DEL LA RESOLUCION DE CONCEJALA DELEGADA 376/2020, DE 27 DE ENERO, POR EL QUE SE DISPONE PERSONARSE EN EL PROCEDIMIENTO ORDINARIO N° 949/2019 INTERPUESTO POR MARÍA DOLORES AZCORRA ELGUEZABAL CONTRA EL ACUERDO DE PLENO DE 18 DE OCTUBRE DE 2019 QUE APRUEBA CON CARÁCTER DEFINITIVO LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO PARA EL ÁREA DE REPARTO N° 42 ORMAZA.

Doña Keltse Eiguren informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta en el Pleno de la Resolución de Concejala Delegada 376/2020, de 27 de enero, por el que se dispone personarse en el procedimiento ordinario nº 949/2019 interpuesto por María Dolores Azcorra Elguezabal contra el Acuerdo de Pleno de 18 de octubre de 2019 que aprueba con carácter definitivo la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para el área de reparto nº 42 Ormaza.

5. BIDEAK GARBITZEKO, HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO, UDALEKO INGURUMEN-GUNEA BERRITZEKO ETA USTIATZEKO

5. DACIÓN DE CUENTA DE LA SUCESIÓN, POR ESCISIÓN PARCIAL, DE UNA DE LAS EMPRESAS COMPONENTES DE LA U.T.E. ADJUDICATARIA DEL

**ETA ANTZEKO BESTE ZERBITZU
BATZUK GAUZATZEKO ZERBITZU
OROKORREN KONTRATUAREN
ABEE ADJUDIKAZIODUNA
OSATZEN DUTEN ENPRESETAKO
BATEN ORDEZKARITZAREN
BERRI EMATEA, ZATIKETA
PARTZIALAGATIK.**

**CONTRATO DE SERVICIOS
GENERALES DE LIMPIEZA
VIARIA, RECOGIDA Y
TRANSPORTE DE RESIDUOS
SÓLIDOS URBANOS,
RENOVACIÓN Y EXPLOTACIÓN
DEL COMPLEJO
MEDIOAMBIENTAL MUNICIPAL Y
OTROS SERVICIOS AFINES.**

Álvaro González jaunak jakinarazio dio Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeari osoko bilkuran honako espedientearen berri emango dela:

Don Alvaro González informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta del siguiente expediente en el Pleno:

Lehenengoa: Bideak garbitzeko, hiriko hondakin solidoak jasotzeko eta garraiatzeko, udaleko ingurumen-gunea berritzeko eta ustiatzeko eta antzeko beste zerbitzu batzuk gauzatzeko zerbitzu orokorren kontratuaren adjudikazioduna den ABEEa osatzen duten enpresetako batek, zati batean banatu denez, kontratuaren oinordekotza bere gain hartuko duelaren jakinaren gainean geratzea.

Primero: Quedar enterados de la sucesión, por escisión parcial, de una de las empresas componentes de la U.T.E. adjudicataria del contrato de servicios generales de limpieza viaria, recogida y transporte de residuos sólidos urbanos, renovación y explotación del complejo medioambiental municipal y otros servicios afines.

Kontratu hori udaleko osoko bilkurak 2014/05/27an egindako ohiko saioan hartutako 84 zb.dun akordioz esleitu zitzaion enpresa hauek osatutako ABEEari: “Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares S.A (IFK: A82741067), eta “Asaser” (Ansareo saneamientos y servicios S.A., IFK: A48679096).

Dicho contrato fue adjudicado mediante acuerdo nº84 adoptado por el Pleno municipal, en sesión ordinaria celebrada el día 27/05/2014, a la U.T.E. formada por las empresas “Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares, S.A”, con C.I.F. nº A82741067 y “Asaser” (Ansareo saneamientos y servicios S.A), con C.I.F. nº A48679096.

Bigarrena: banaketaren ondoriozko enpresak, hau da, Ansareo servicios integrales SL sozietateak (IFK:

Segundo: la empresa resultante de la escisión, a saber, “Ansareo servicios

B95975959), lege-ondorio guztietan subrogatzen da banatutako enpresak, Ansareo saneamientos y servicios SAK, aipatutako kontratuan okupatzen zituen karguetan.

integrales, S.L.”, con C.I.F nº B95975959, se subroga a todos los efectos legales en el lugar que ocupa la empresa escindida, “Ansareo saneamientos y servicios S.A” en el contrato de referencia.

Banatutako enpresa ez da desagertuko eta sortutako enpresa berriarekin solidarioki erantzungo die aipatutako kontratuaren ondorioz dagozkion obligazio guztiei.

La empresa escindida no desaparece y responderá solidariamente con la nueva empresa creada de todas cuantas obligaciones le correspondan en el contrato de referencia.

Hirugarrena: erabaki honen berri ematea banatutako enpresari —Ansareo saneamientos y servicios SA— eta sortutako enpresa berriari —Ansareo servicios integrales SL—.

Tercero: notificar el presente acuerdo tanto a la empresa escindida -“Ansareo saneamientos y servicios S.A”-, como a la nueva creada -“Ansareo servicios integrales, S.L.”-.

Halaber, erabaki honen berri emango zaio ABEE adjudikazioduna osatzen duen beste enpresari —Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares SA—, baita Azpiegitura eta Zerbitzuen Sailari eta Kontu-hartzaitzari ere.

Este acuerdo se notificará igualmente a la otra empresa componente de la U.T.E adjudicataria -“Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares S.A”-, y así mismo a los departamentos de Infraestructura y servicios y de Intervención.

6. TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDATZEKO BI DEKRETUREN KONTU-EMATEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeari jakinarazi zaio Osoko Bilkuran honako dekretuen berri emango dela:

217/2020 zenbakidun Dekretua
17.000,00 euroko zenbatekoarekin.

6. DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Se informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta de los siguientes decretos en el Pleno:

Decreto nº 217/2020 por un importe

2020/01 kreditu-transferentzia. Bideo-aktaren soluzioa osoko bilkuretarako.

461/2020 zenbakidun Dekretua 25.600,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/02 kreditu-transferentzia. Dirulaguntzen lerro hauen finantzaketa: 5.lerroa, merkataritza-elkarteen funtzionamenduaren gastuak; eta 6.lerroa, merkatarien elkarreentzako asoziazionismoa sustatzea.

de 17.000,00 euros. Transferencia de crédito 2020/01. Solución de video-acta para las sesiones del Pleno.

Decreto nº 461/2020 por un importe de 25.600,00 euros. Transferencia de crédito 2020/02. Financiación de las siguientes líneas de subvenciones: Línea 5, gastos por funcionamiento de asociaciones comerciales; y Línea 6, fomento del asociacionismo para asociaciones de comerciantes.

7. INFORMAZIO OROKORRA

Ez dago informazio orokorrik.

7. INFORMACIÓN GENERAL

No hay información general.

8. GALDE-ESKEAK

- Elkarrekin Podemosen 5066/2020 idatzia, zeinaren bitartez udalak Laguntzen Batzordearen bidez erretiratuei ematen dizkien dirulaguntzei eta aurretiazko erretiratze-primeiei buruz galdetu duen.

Uriarte jaunak zehaztu du Dirulaguntzen Batzordeko presidentek ez zuela esan Udalaren zerbitzu juridikoari txosten bat eskatu zitzaionik Udaleko erretirodunentzako dirulaguntzen egokitasunaren inguruan, baizik eta eskatu egingo zela. Behin

8. RUEGOS Y PREGUNTAS

- Escrito nº 5066/2020 de Elkarrekin Podemos preguntando sobre las ayudas que se otorgan a las personas jubiladas del Ayuntamiento a través de la Comisión de Ayudas y acerca de las primas de jubilación anticipada.

El Sr. Uriarte matiza que el Presidente de la Comisión de Ayudas no dijo que se hubiera solicitado al servicio jurídico del Ayuntamiento un informe sobre la pertinencia de las ayudas a las personas jubiladas del Ayuntamiento, sino que se iba a solicitar. Una vez

hauteskundeak igarotakoan, eta urte berria hasitakoan, txosten hori eskatu da, baina ez da oraindik egin. Konpromisoa hartuta dago ekainerako azalpenen bat izateko.

Ignacio Uriarte jaunak azaldu du Dirulaguntzen Batzordean erretirodunen ordezkariak daudela, ez, ordea, negoziazio-mahaian, pertsona horiek ez baitute harremanik Udalarekin. Ez dago erretirodunekin negoziatzeko fororik. Hori da, hain zuzen, argitu beharreko gaia: dirulaguntza horiek hamarkadatan eman badira ere, horiekin jarraitu beharra dagoen. Negoziazio-mahaia Udalean lan egiten duten pertsonak ordezkatzeko ditu, eta ez erakundearekin jada lan-loturarik ez dutenak.

Uriarte jaunak erantzun du erretirodunen kolektiboak bere horretan ez duela bilerarik eskatu Langileen arduradunarekin, edo, behintzat ez duela horrelako informaziorik.

Eudelen erretiro aurreratuaren primen inguruan egindako zirkularrari dagokionez, adierazi du alkateak, berak eskatuta, Idazkaritzari, Kontuhartzaitzari eta Giza Baliabideetako arduradunari txostenak eskatu zizkiela. Txosten horiek eman dira, eta, horiek ikusita, erabaki da oraingoz erretiroaren primak etetea. Erabaki horren berri eman da negoziazio-mahaian, oraindik txostenak helarazi ez diren arren. Gai hori negoziatu daiteke.

pasadas las elecciones y empezado el nuevo año se ha solicitado dicho informe, que todavía no está emitido y el compromiso adquirido es que podamos tener alguna explicación para junio.

Don Ignacio Uriarte explica que en la Comisión de Ayudas hay representantes de las personas jubiladas. No así en la Mesa de Negociación, ya que estas personas no tienen relación con el Ayuntamiento. No hay ningún foro de negociación con las personas jubiladas. Esta es precisamente la cuestión a dilucidar: si a pesar de que se lleva décadas concediendo dichas ayudas, se debe continuar así. La Mesa de Negociación representa a las personas que están trabajando en el Ayuntamiento, no a aquellas que ya no tienen vínculo laboral con la institución.

Señala el Sr. Uriarte que el colectivo de personas jubiladas, como tal, no ha solicitado ninguna reunión con el Responsable de Personal o, al menos, no le consta.

Respecto a la circular de Eudel sobre las Primas de Jubilación Anticipadas indica que la Alcaldesa, a petición suya, pidió informes a Secretaría, a Intervención y al Responsable de Recursos Humanos. Dichos informes han sido emitidos y a la vista de los mismos se ha tomado la decisión de suspender de momento las primas de jubilación. De dicha decisión se ha dado cuenta a la Mesa de Negociación, aunque no se han trasladado todavía los informes. Este asunto sí está sujeto a negociación.

Arrazionalizazio Planari dagokionez, adierazi du Udalak egingo duela, baina ez primak babesteko, baizik eta giza baliabideak arrazionalizatzeko, eta baliteke haren ondorioek batzuk harritzea. Adibidez, bitartekoak direla medio, hautaketa-prozesu ugari egin behar dira, eta posible da bidezkoa ez izatea kategoriatan batzuetan erretiroa ez sustatzea, prima horiek pertsonaren interesekoak bai baina erakundearen interesekoak izan ez daitezkeelako. Hori diote gaia birplanteatzea ekarri duten epaiek.

Ignacio Uriarte jaunak azaltzen jarraitu du txosten horiek negoziazio-mahaiarekin eta batzorde honekin partekatuko direla, prozesuan aurrera egin ahala.

- Elkarrekin Podemosen 5093/2020 idatzia, zeinaren bitartez 2016. urtean abiarazi zen herritarren gogobetetasunaren inguruko inkesta kontratatzeari buruz galdetu duen

Álvaro González jaunak erantzun du:

- Kontratua adjudikatu gabe gelditu zen, egikaritu ahal izateko epeak gainditu egin zirelako. Hau da, kontratua izapidetzea atzeratu izanaren ondorioz, haren xedea ezin izan zen aurreikusitako epean egin, hau da, 2017rako.

En cuanto al Plan de Racionalización señala que el Ayuntamiento va a hacerlo, pero no para amparar las primas sino para racionalizar los recursos humanos y sus conclusiones pueden sorprender a algunos. Por ejemplo, debido a las interinidades hay que realizar muchos procesos selectivos, por lo que puede no resultar procedente incentivar la jubilación en algunas categorías, ya que esas primas pueden ir en interés de la persona pero no a la institución, que es a lo que se refieren las sentencias que han dado lugar al replanteamiento del asunto.

Don Ignacio Uriarte continúa explicando que dichos informes se compartirán con la Mesa de Negociación y con esta comisión, a medida que se vaya avanzando en el proceso.

- Escrito nº 5093/2020 de Elkarrekin Podemos preguntando por la contratación de la encuesta de satisfacción ciudadana que se inició en el año 2016.

Responde Don Alvaro González:

- El contrato quedo sin adjudicar porque los plazos para poder ejecutarlo quedaron superados. Es decir, que el retraso en la tramitación del contrato hizo que el objeto del mismo no fuera posible realizarlo en el plazo previsto, ya que era para el 2017.

- Txostena egitearen arduraduna Kalitateko teknikaria zen.
- Arduradun horrentzat ondoriorik edo zigorrik egoteari eta txostena ez egiteko arrazoari dagokionez, ez dago txostena egiteko eperik. Txostenak ez dira preklusiboak. Arrazoia da lanak pilatuta zeudela, eta beste batzuek hartu zutela lehentasuna.
- Ez zitzaion beste inori eskatu txostena egiteko ez zegoelako beste inor. Horrez gain, hori normalean ez da egiten ez bada epe luzeko baja bat dagoelako edo plaza hutsa gelditzen delako, dagokion teknikariak ezagutzen baitu gaia.
- Une horretan enprekin izandako komunikazioei dagokienez, gai horren inguruan informazioa eskuratzen deitu zutenean esan zitzaion txostena egitearen zain zeudela. Bi dei bakarrik egon ziren.
- 2020ko urtarrilean kontratuarekin jarraitzeari uko egiteari dagokionez, enpresei legean aurreikusitako moduan jakinarazi zaie.
- Herritarren asebetetze-inkesta adjudikatzeko izapidetutako kontratu txikiari dagokionez,
- El responsable de la emisión del informe era el Técnico de Calidad.
- Respecto a si hubo repercusión o sanción para dicho responsable y a la motivación de que no se hiciera el informe, no existe ningún plazo para la emisión del mismo. Los informes no son preclusivos. La motivación es que había una acumulación de tareas y se dio prioridad a otras.
- No se solicitó a otra persona que hiciera el informe porque no había otra persona. Por otra parte, es algo que no se suele hacer salvo baja de larga duración o que la plaza quede vacante, ya que quien conoce la materia es el técnico correspondiente.
- Sobre la comunicación que se tuvo con las empresas en ese momento, cuando llamaban para informarse del asunto se les indicaba que estaba pendiente de emitirse el informe. No hubo más de dos llamadas.
- El acuerdo de renuncia a continuar con el contrato de enero de 2020 se les ha notificado a las empresas en la forma prevista en la ley.
- En cuanto al contrato menor tramitado para adjudicar la encuesta de satisfacción

ez zuen zerikusirik izan adjudikatzeko gelditu zenarekin Azken hori izan zen prozedura negoziatu bidez izapidetutako bat, zeinaren xedean sartuta zeuden asebetetzearen 16 ikerketa sakon. Kontratu txikiaren xedea, ordea, 16 ikerketa horien galdera nagusien zati bat zuen herritarren asebetetze-ikerketa bat zen.

ciudadana realizada, no tuvo nada que ver con el que quedó pendiente de adjudicar. Este fue un contrato tramitado por procedimiento negociado cuyo objeto comprendía 16 estudios exhaustivos de satisfacción a diferencia del contrato menor que era un estudio de satisfacción ciudadana general que recogía un extracto de las preguntas principales de aquellos 16 estudios.

Puntu horretan, Amieva andreak adierazi du xedea, azken finean, berbera zela, eta González jaunak erantzun dio, azaldu denez, ez dela berbera. González jaunak idatziaren balderei erantzuten jarraitu du:

Llegados a este punto señala la Sra. Amieva que a fin de cuentas el objeto es el mismo, respondiente el Sr. Gonzalez que, como se ha explicado, no es el mismo. Continúa respondiendo a las preguntas del escrito el Sr. González:

- kontratu txikia 12.000 eurokoa zen, eta adjudikatu ez zen kontratuak bi urteko epea eta urteko 31.000 euroko prezioa zuen.
- Kontratu txikiaren jakinaren gainean egoteari dagokionez, sail horiek inoiz ez ditu inkestak kudeatu, erantzukizuna Kalitatearena baita.
- Kontratu txikiarako horietarako behar den beharrezkotasun-txostena egin zen, Kalitateak igorritakoa.
- El contrato menor era de 12.000 euros, mientras que el contrato que no se adjudicó tenía un plazo de dos años y un precio de 31.000 euros/año.
- Respecto a si el Área de Comunicación estaba al corriente, dicho departamento no ha gestionado nunca las encuestas, ya que la responsabilidad es de Calidad.
- Para el contrato menor se hizo el informe de necesidad exigible para los contratos menores, emitido por Calidad.

Zentzu horretan, Amieva andreari harritu egiten dio Kalitateak beste kontratuaren balorazio-txostena egin ez

A este respecto se sorprende la Sra. Amieva de que Calidad no hiciera el informe de valoración del otro contrato y

izana eta beharrezkotasun-txosten horretarako denbora eduki izana. González jaunak erantzun du azken hori eredu-txosten bat dela, egiten erraza. Amieva andreak galdetu du teknikariaren irizpidea txostenak egiteko erraztasuna den. Álvaro Gonzálezek argitu du teknikariak ikusi zuela zaila zela eskaintzak baloratzeko txostena egitea xedea egikaritzeko aukera emateko datarako. Erabaki zuen kontratu txiki bat egitea, irismen handiagokoa baina galdera gutxiagorekin. Orduan, Amieva andreak galdetu du orduan zergatik ez zuen txosten bat egin kontratuari uko egitea proposatzeko, kontratu txikiarekin hasi aurretik, eta González jaunak erantzun dio hori bera egotzi diola. Dena den, errepikatu du txosten horiek ez direla preklusiboak.

Uriarte jaunak gogorarazi du horrelako kontratu batean epea funtsezkoa dela, hau da, ezin da beste ekitaldi batean egikaritzeko utzi, obra-kontratu batean bezala.

Amieva andreak errepikatu du harritu egiten duela txosten bat egin ez izanak pertsona bakarrak egin dezakeelako, eta 2020ko urtarrilera arte kontratuari formalki uko ez egiteak.

Uriarte jaunak gogorarazi du Kalitateko teknikari bakarra dagoela. Galdetu du udal-langile baten lanaz arituko diren, eta, Amieva andreak esan du baietz, aipatutako inguruabarrak tarteko. Uriarte jaunak adierazi du kexa hori jasota gelditu dela, baina uste du gaia dagoeneko utzi beharra dagoelako, zalantza politikorik ez badago, behintzat.

sí tuviera tiempo para este informe de necesidad. Explica el Sr. González que este último es un informe modelo de fácil elaboración, a lo que la Sra. Amieva pregunta si el criterio que sigue el técnico es la facilidad a la hora de hacer los informes. Don Alvaro González aclara que lo que el técnico vio es la dificultad de elaborar un informe de valoración de ofertas a tiempo para que la adjudicación se hiciese en fecha que posibilitara la ejecución del objeto. Y decidió hacer un contrato menor con más alcance pero con menos preguntas. Entonces la Sra. Amieva pregunta por qué no emitió en ese momento un informe proponiendo la renuncia al contrato antes de iniciar el menor, a lo que el Sr. Gonzalez responde que ya le ha reprochado esa circunstancia al técnico. No obstante, insiste en que dichos informes no son preclusivos.

El Sr. Uriarte recuerda que en un contrato de estas características el plazo es esencial, es decir, que no puede dejarse la ejecución para el ejercicio posterior, a diferencia de un contrato de obras.

Insiste la Sra. Amieva en que es sorprendente que no se elabore un informe porque solo haya una persona que puede hacerlo y que no sea hasta enero de 2020 cuando se renuncia formalmente al contrato.

El Sr. Uriarte recuerda que solo hay un Técnico de Calidad y pregunta si se va a hablar del desempeño del trabajo de un empleado municipal, a lo que responde la Sra. Amieva que en este caso sí por todas las circunstancias mencionadas. El Sr. Uriarte contesta que queda constancia de esa queja, pero entiende que debe dejarse ya el tema salvo

González jaunak errepikatu du bost eskaintza baloratzeko txosten bat egitea eta kontratu txiki baten beharrezkotasun-txostena egitea oso ezberdina dela, eta, hori kontuan hartuta, kontratua adjudikatzeko eta egikaritzeko beharrezko epeak aintzat izanik, teknikariak erabaki bat hartu zuela. Jarraian, azken galderari erantzun dio:

- Ez da bateragarria adjudikazio-prozesuan dagoen lizitazio baten xede bera duen kontratu txiki paralelo bat egitea. Kasu honetan, ordea, xedea ez da berbera.

Ibon Rodríguez jaunak jarraitu du, eta esan du egokia dela langile baten jarduera aztertzea, Giza Baliabideen Arloa batzorde honen barruan baitago. Horri dagokionez, esan du gai horren inguruan langileak ez duela “*batere asmatu*”, kontuan izanda, gainera, Kalitate Saila dela. Hori dela eta, honako hau jakin nahi du: ea arrazoiak aztertu diren (agian saila oso txikia da), neurriak hartu diren eta neurri horietako bat izan den langileari arreta deitzea edo sailaren osaera aztertzea, berriz egituratzeko.

Uriarte jaunak erantzun dio, berak beste iritzi bat duela gai horren gainean. Dena den, teknikariarekin hitz egin dute.

Orduan, Rodríguez jaunak galdetu du ea hori izan den arazoa eta ez saila

que haya dudas de índole política. Por su parte el Sr. Gonzalez insiste en la diferencia entre realizar un informe de valoración de cinco ofertas y un informe de necesidad de un contrato menor, a la vista de lo cual, y teniendo en cuenta los plazos necesarios para la adjudicación y la ejecución del contrato, el técnico tomó sus decisiones. A continuación responde a la última pregunta:

- No es compatible hacer un contrato menor paralelo y con el mismo objeto que una licitación que está en proceso de adjudicación, pero en este caso no se trata del mismo objeto.

Continúa don Ibon Rodríguez señalando que sí procede analizar el desempeño de un empleado ya que esta comisión también incluye el área de recursos humanos. A este respecto manifiesta que en relación con este asunto dicho trabajador “*no ha dado una*”, teniendo en cuenta, además, de que se trata del Departamento de Calidad. Por ello solicita conocer si se han analizado los motivos (quizás el departamento es muy pequeño), si se han tomado medidas y si esas medidas han consistido en dar un toque al empleado o en examinar la composición del departamento de cara a reestructurarlo.

El Sr. Uriarte responde que en relación con este asunto opina de forma diferente. No obstante, sí se ha hablado con el técnico.

Pregunta entonces el Sr. Rodríguez si ese ha sido el problema y no que el

txikiegia izatea. Uriarte jaunak erantzun dio berak ez duela hori esan, ez bata ez bestea, eta berak ez duela inolako arazorik ikusten. Ibon Rodriguez jaunak erantzun dio gertatutakoa ikusita arazorik ikusten ez badu, arazo larriago bat dagoela, Uriarte jauna baita nagusia. Batzordeburuak esan du egia dela zerbait ez dela guztiz ondo egin, baina ez du modu berean dimentsionatu, arlo horren esku dauden zereginak kontuan izanda. Azalpen horiek ikusita, Rodríguez jaunak galdetu du ea arlo horren tamaina egokia den; izan ere, baliteke arazoa langile horren lan-kargagatik gertatu izana. Uriarte jaunak adierazi du galdera hori dagoeneko erantzun duela.

Amieva andreak erantzun dio ea berriz lizitatuko den ezaugarri horiek dituen kontratu bat. Uriarte jaunak erantzun dio legegintzaldi guztietan egiten direla mota horretako inkestak, baina ez duela horri buruzko informazio gehiagorik.

Ondoren, honako eskaera hauek proposatu ditu Rodríguez jaunak:

- Aurreko eskaera errepikatu du, hau da, espedientean jasota egotea batzordera ekartzen diren proposamen guztiekin zerikusia duten txostenak.
- Informazio-batzordeak lan egiteko tresnak izan behar direnez, ez dute denboramugarik eduki behar; izan ere, oposizioko zinegotzien eskubideak mugatzen dira horrela. Hori dela eta, batzordeen ordutegia aldatzeko

departamento es muy pequeño, respondiendo el Sr. Uriarte que él no ha dicho ninguna de ambas cosas y que él no ve ningún problema. Don Ibon Rodriguez contesta que si, a la vista de lo ocurrido, no entiende que hay un problema es que el problema es más grave ya que el Sr. Uriarte es el jefe. El Presidente de la Comisión matiza que es cierto que hay algo que no se ha hecho del todo correctamente pero no lo dimensiona de la misma forma, teniendo en cuenta las labores que tiene encomendadas dicha área. A la vista de estas explicaciones el Sr. Rodríguez pregunta si el área tiene el tamaño adecuado, ya que quizás el problema ha sido la carga de trabajo de dicho empleado. Indica el Sr. Uriarte que ya lo ha respondido.

La Sra. Amieva pregunta si se va a volver a licitar un contrato de estas características. Contesta el Sr Uriarte que cree que este tipo de encuestas se hacen cada legislatura, pero no tiene más información al respecto.

A continuación el Sr. Rodríguez plantea las siguientes peticiones:

- Reitera la petición anterior de que consten en el expediente todos los informes relacionados con las propuestas que se traigan a la comisión.
- Dado que las comisiones informativas deben ser un instrumento de trabajo no deben tener limitación temporal, ya que se restringen los derechos de los concejales de la oposición Por ello solicita cambiar el horario de las

eskatu du, goizeko 08:00etan hasi daitezten edo batzordeak arratsaldean egin daitezten. Horrela, denbora gehiago izango dute denek. Berenberegiz erantzuteko eskatu du, ezezko erantzuna bada ere.

- Idazkariaren txosten bat eskatu du, non adierazi beharko duen zenbat denbora duen gobernu-taldeak, legearen ikuspegitik, idatziz eskatzen den informazioaren gaineko erantzun bat emateko. Batzuetan, informazioa eskatzen da eta ez da ezer jasotzen, edo jasotzen denean berandu da.

Rodríguez jaunak, bestalde, aurrekontuari buruz Getxoberri bidalitako informazioagatik galdetu du; izan ere, inbertsioen atalean ez dator bat onetsitako aurrekontuaren atal berarekin.

Uriarte jaunak erantzun dio Getxoberri argitaratu den aurrekontuan Udaltzako urtarilean onetsitako kreditu-gaikuntza eta zuzenketak gehituko direla, zeina indarrean dagoen aurrekontuari gehituko zaion. Inbertsioari dagokionez, aurrekontuan ez dago onetsita, baina aurreikusitako egin da, eta, beraz, kontuan hartu da.

Rodríguez jaunak argitu du argitalpen horretan belaunaldien arteko kohesiorako ekipamendu publiko mistoari buruzko inbertsioa aipatu dela (gazteentzako zuzkidura-ostatuak), batzorde honetan irizpena jaso berri duena. Hortaz, argitaratu zen egunean

comisiones, de forma que empiecen a las 8 de la mañana o se deje una comisión para la tarde. Así todos dispondrán de más tiempo. Solicita respuesta expresa, aunque sea en sentido negativo.

- Solicita un informe del Secretario indicando cuánto tiempo tiene el equipo de gobierno, desde el punto de vista de la ley, para responder a la información que se solicita por escrito. A veces se solicita una información y no se recibe nada o cuando se recibe es tarde.

El Sr. Rodríguez también pregunta por la información que se ha pasado al Getxoberri sobre el presupuesto, ya que en el apartado de inversiones no coincide con el mismo apartado del presupuesto aprobado.

Responde el Sr. Uriarte que el presupuesto que se ha publicado en el Getxoberri incluye las enmiendas aprobadas más la habilitación de crédito que aprobó el Pleno de enero, que se incorpora al presupuesto vigente. En cuanto a la inversión, no está en el presupuesto como tal aprobado, pero está prevista y por ello se ha tenido en cuenta.

El Sr. Rodríguez matiza que en dicha publicación se cita la inversión relativa al equipamiento público mixto de cohesión intergeneracional (alojamientos dotacionales para jóvenes), que se acaba de dictaminar en esta comisión. Por tanto en la fecha de la publicación no estaba

onetsi barik zegoen; beraz, gezurra da. Aurrekontuan onetsitako inbertsioak, guztira, hiru milioi zazpiehun eta koska dira, ez artikulu horretan adierazi dena.

Uriarte jaunak erantzun dio urtarrilean onetsitako inbertsioa gehitu behar dela eta ez datorrela bat Rodríguez jaunak gai horren egiazkotasunari buruz duen iritziarekin; izan ere, herritarrei egindako iragarpen bat da, 2020. urtean egingo dena kontuan izan dezaten egiten dena.

Rodríguez jaunak berriz ere esan du albistean jartzen duela oraindik onesteke zegoen inbertsio bat egingo zela; hortaz, gezurra da.

Uriarte jaunak berriz ere esan du ez dagoela horrekin ados.

Bestelako gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 14:55an, eta, batzordeburuarekin batera, idazkariak sinatu du.

ANTOLAKUNTZA ETA
KONTUETAKO INFORMAZIO
BATZORDEKO BURUA/
EL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN
INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN
Y CUENTAS

Ignacio Uriarte Gorostiaga

aprobada, luego es mentira. El total de las inversiones aprobadas en el presupuesto es de tres millones setecientos y pico, no lo que figura en dicho artículo.

Contesta el Sr. Uriarte que debe sumarse la inversión aprobada en enero y que discrepa de la opinión del Sr. Rodríguez sobre la veracidad de este asunto, ya que en este caso se trata de un anuncio a la ciudadanía para que tenga en cuenta lo que se va a llevar a cabo en el 2020.

El Sr. Rodríguez insiste en que la noticia era que el presupuesto incluía una inversión que en ese momento no estaba aprobada, por lo que es mentira.

El Sr. Uriarte discrepa nuevamente acerca del asunto.

Sin más asuntos que tratar se levanta la sesión siendo las 14:55 horas, firmando el Presidente, junto con la Secretaria que da fe.

ANTOLAKUNTZA ETA
KONTUETAKO INFORMAZIO
BATZORDEKO IDAZKARIA/
LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN
INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN
Y CUENTAS

Cristina Orbezu González